

BERRIKETAN

Debako herri aldizkaria - 174. alea - 2013ko maiatza

A woman with white face paint, a white hat with a black band, and red lips is holding a white sign. The sign has the text 'Antzerki Astea hastera doa!' written in a stylized, cursive font. The background is black.

*Antzerki
Astea
hastera doa!*



SUKIA

Fruitu eta Barazkiak

Lersundi, 13
Tel.: 943 192 386
Deba (Gipuzkoa)



ASKETA, S.L.

ERAIKUNTZAKO ZERBITZU INTEGRALA

OFICINAS Y EXPOSICION:
Maxpe, 3-5 - 20820 DEBA (Gipuzkoa)
Tel.: 943 191 952 - Faxa: 943 192 460
E-mail: asketa@telefonica.net
www.asketa.net

ALMACÉN:
Parque Empresarial Esser - Pabellón NN 8-9
20850 MENDARO (Gipuzkoa)



KALITATEA
Enpresa Registrada Nº 2105/049
NIVEL 2



ABEL

Kristaldegia

Mota guztietako kristalak
Lan kristalarasak

Ibaiondo, 2 • 48700 ONDARROA (Bizkaia)
Tel. 946 833 269 • Fax 946 134 291 • E-mail: abel-kristal@euskalnet.net



ARKATZA

Liburudenda

Tel.: Ostolaza, 3
943 192 057
20820 DEBA



ISABEL FRUTADENDA

Sokagin Kalea, 2 behea - 20820 DEBA
943 029 186



AZKUNE
FRUTA PRODUKZIOA ETA ZERBITZUA
1975etik zuekin!



URDAITEGIA AITTOLA HARATEGIA

Astillero, 3
Tlfnoa.: 943 191 776
20820 DEBA

LENTZERIA

Azoka

MERTZERIA

Itur kalea, 9 • Tlfnoa.: 943 192 722 • DEBA



kutxa

zugandik zugana

haizea

estetika

Tlf. 943 029 607
Iturkale 22, 1 eskubia
sarrera Zesterokua plazatik




BURU - ZURI

Taberna

- Otartekoak
- Plater konbinatuak
- Gosariak
- Razioak
- Pintxo bereziak
- Lunfnak
- Gauetan traçoak

Lersundi Kalea, 23
Tel.: 943 191 034
20820 DEBA



Kafetegia

Foruen Plaza
Tel.: 943 191 035
20820 DEBA (Gipuzkoa)

Calbeton



JATETXEA

Agustín
Larrañaga Elorza

Denboraldiko platera
arrain eta barazkitan

Hondartza kalea
Tlfnoa.: 943 191 970
20820 DEBA (Gipuzkoa)

L.A.

LARRAMENDI ANAIK, S.L.

- LIXATUAK
- BERNIZATUAK
- PARKET
- PARKET FLOTANTEAK

Tlfnoa.: 943 021 959
Mobila: 670 411 786
Tel.-Fax: 943 191 782

ARTZABAL AUZOA
20820 DEBA (Gipuzkoa)

Ifar kalea, 12 behea
20820 Deba

Telefonoa: 943 19 13 83
Aldizkariaren e-maila:
berriketan@zuhatza.com
Elkartearen e-maila:
koordinatzailea@zuhatza.com

Argitaratzailea:
Zuhatza Euskara Elkarte

Erredakzio taldea:
Goizane Aizpurua,
Mikel Aizpurua,
Koldo Aperribai,
Izaro Aulestiarte,
Nagore Dorronsoro,
Lukax Dorronsoro,
Xabier Laka,
Migel M.Lekube (Lutxo)

Ina Oiartzabal eta
Eider Zulaika

Azaleko irudia:
Erredakzio taldea

Publizitatea:

Joseba Escudero eta
Juan Mari Gurrutxaga
Tlfnoa.: 943 19 13 83
943 19 26 94

Logotipoaren diseinua:

Iñaki Elosua

Maketazioa:
Leire Rubio

Banaketa arduraduna:

Juanma Oiartzabal

Inprimategia:

Euskalinpri

Tirada:

1.400 ale

Lege gordailua:

SS-246-2009

ISSN 2171-7656

OHARRA:

Berriketan-ek ez du bere gain hartzen IRITZIA eta GUTUNAK ataletan adierazitakoen erantzukizunik. Eskutitz guztiek ondo identifikatuta egon beharko dute argitaratu ahal izateko. Ez ahaztu datu hauek jartzea: izen-abizenak, NAN eta telefono zenbakia, nahiz eta gero izen-abizenak soilik argitaratu. Idatziak gehienez 25 lerro izan beharko ditu eta berriketan@zuhatza.com helbidera bidali beharko dira, hilabeteko azken astelehena baino lehen.

ARGITARATZAILERAK



LAGUNTZAILERAK



Deba Udal



HEZKUNTZA, HEZKUNTZA POLITIKA
ETA KULTURA SAIA
Hezkuntza Politikako Koordinatzailea
DEPARTAMENTO DE EDUCACIÓN,
POLÍTICA LINGÜÍSTICA Y CULTURA
Vicesecretaría de Política Lingüística



Gipuzkoako
Foru Aldundia



10



15

KOLABORAZIOA.

Nagore Dorronsoro,
"Desikasi
desbakartzeko". **05.**

IRITZIA.

"Izan gazte, izan aske"
(Gazte Asanblada);
"Aulki-joko ankerra"
(Iker Lamariano)

06-07.

ALBISTEA.

Badator XXVII.
Antzerki Astea.

08-09.

ELKARRIZKETA.

Debako Sortu alderdia
sortu da. **10.**

**BERRIKETAN
GAZTEA.**

Izenbe kafetegia, den-
bora-pasak... **11-14.**

ALBISTEA. Kolore
Anitz Eguna. **15.**

LABURRAK.

Triatloia, Errealaren
Lagunak peñaren urte-
muga, Liburuaren
Eguna... **16-17.**

ZERBITZUAK. 18.



16

Ander Salegi



17



Berriketan-ek ez du bere gain hartzen GUTUNAK atalean adierazitako en erantzukizunik. Eskutitzak ondo identifikatuta egon behar dira argitaratu ahal izateko. Ez ahaztu datu hauek jartzea: izen-abizenak, NAN eta telefono zenbakia. Bidali helbide hauetara: berriketan@zuhatza.com edo koordinatzailea@zuhatza.com.

Zaballako lapurrak!

Lerrotxo xume hauen bitartez besarkadarik beroenak eta eskerrak ematera natorkizue, lehenik senide ororen partetik, ama maitea buru delarik.

Aita zendu eta 14 egun kostatu zitzaidan Itziarra ailegatzea. Bai, jauna. Cadizko puntatik Euskal Herrirainoko bidaia ordubete bakarreko baimenarekin. Ordubete bikaina, halere. Hunkigarria oso. Askoz gehiago merezi zuen aitak.

Espetxera itzultzerakoan, ertzainen baimena tarteko, senideek maitasun guztiarekin emandako bi gazta erdiarekin nentorren Carmen izeneko kartzelera ziztrinarekin topatu nintzen arte. Gehiago ez nituen ikusi... Hurrengo egunean kartzelera berari gertatutakoaz galdetzean, bere aurpegi lodi edo mutur guztiarekin -bietatik soberan duela esango nuke- honakoa bota zidan: *“Respecto a los quesos, el responsable me comentó que si quería los podía tirar a la basura y*

si no que te los pasara, pero me han parecido demasiado buenos y he decidido llevarlos a casa, así que los comeré yo”. Nolaaaa? Presoei lapurretan aritzen zara? Lotsaren arrastorik ez zuela eta epailearen aurrean salatuko nuela esatean axolarik ez zitzaiola esanez ospa egin zuen. Non ote dauka duintasuna andere gaizkile horrek?

Españolito ustezko jauntxo menperatzaile hauek badirudi ustelkeria erabat itsatsia daramatela geneetan.

Euskal Herrirako bidaia luzea izan bazen, bueltakoa ez zen labor geratu. Dueso, Villabona, Leon, Salamanca eta Badajozen egin bainuen lo. Gastronomía ezberdinak ezagutzeko aukera, gaztarik gabe, noski.

Amaitzeko, agur beroak guztiei. Aurrera beti!!!

Joxemari Beristain “Erlete” preso politikoa,
Puerto III kartzelatik

Greba orokorra maiatzaren 30ean

Hilabete honetako protagonistak langileok gara dudarik gabe. Pasa den maiatzaren 1ean, Nazioarteko Langile Mugimenduaren Egunaren baitan, udaletxeak langile borrokaren ikurra den bandera gorria jarri zuen balkoian. Gainera, egun honen izaeraren arrazoia azaltzen zuen panel bat ere jarri zen arkupeetan, jaiegun arrunt bat bezala pasa ez zedin.

Bestalde, maiatzaren 30erako deituriko GREBA OROKORRA dela eta, hilabete-an zehar asanblada irekia egongo da, antolakuntzetan parte hartu nahi duen oro bertaratu dadin. Adi deialdiei! Zer da egun bateko soldata bizitza osoko eskubideen aldean? M-30 KALERA!!

Debako Greba Batzordea



urlo
SERVICIOS INMOBILIARIOS
HIGIEZINEN ZERBITZUAK

API
Nº. 379

Higiezin Zerbitzuak
Aholkularitza
Higiezin Agentzia
Komunitateen administrazioa
Tasazioak/ Balioztaketak

Sokagin, 2 bajo
Apartado 3
20820 DEBA

Tel.: 943 192 471
Tel./Fax: 943 192 303
urlo@urlosi.net

MAXI BAR

Lersundi, 28
Tel.: 943 191 206
Deba (Gipuzkoa)



NAGORE DORRONSORO

DESIKASI DESBAKARTZEKO

Euskaldunok izan gara nabigatzaile, esploradore, misiolari eta konkistatzaile; izan gara eta gara abenturazale eta bidaiari; baina izan gara eta gara, ezeren aurretik, mendebaldeko pentsamolde. Eta gure ibilerek, nola ez, utzi dute arrastoa; bikaina batzuetan, hobe beharrez izanda ere benetan kaltegarria besteetan: bertakoak asebetetzen zituzten sinesmen paganoei bizkar eman eta zibilizazio osoak konbertitzea kasu. Horregatik, zaila egin zait askotan distantzia kulturala abismo den herrietan egoki jokatzeko, nire mendebaldeko burua hitz egiten harrapatzea esaldia bukatu aurretik, eta hurrengo baterako hausnarketari tarte egitea.

Gaur, urrun bidaiatu gabe, antzera sentitu naiz lagun marokorren etxean. Egongelako atean, beirazko leihotoak estaltzen zintzilik jarritako zapia gustatu zait, eta hala aipatu diot. Berak: "Badakizu senarraren lagunak bisitan datozenean ni sukaldetik kanpo lasai ibili ahal izateko, gure begiak gurutzatzeko arriskurik gabe". Egiptoko Minuf herrixkan ikusia etorri zait berehala, emakumezko bakarra nintzen jateke hartan harik eta senar-emazte bat etorri zen arte, emakumezkoak begiak soilik bistan. Mahaia hartu zutenean zerbitzariak bionbo luze bat zabaldu zuen haien inguruan.

Orduan, ezin izan diot eutsi eta esan egin diot, harreman polit asko galtzen dituztela horrela, bakarrik egoteko aukerak handitzen direla, gogorra iruditzen zaidala eta oso bidegabea, "eta ni gizonezkoa banintz?", "ez zinateke hemen egongo, seguru" bota dit.

Berriketan, etxeko kontuez aritu gara eta ohituraz ere bai. Gauza bat dago asko harritu duena: "Non

daude hemen auzokideak behar dituzunean? Gure herrian gaixorik bazaude auzokoak egiten dizkizu erosketak, edozein laguntza behar baduzu beti dago auzokoa hor. Eta familia hurbil ez badago? Gurean familiarekin baino harreman estuagoa izaten da askotan auzokoarekin".

Baseri garaietatik apenas den auzolanik hemen. Gu umeak ginela oso ohikoa zen esnea edo falta zena auzokoari eskatzea behintzat. Pentsatzen jarrita hamar urtean bi bider bakarrik eskatu diot auzokari zerbait, behin arrautzak, beste behin mantzani. Niri inoiz inork ezer ere ez.

Hamar urtean! Gure balio kapitalistak dira: autonomoak gara, oso efizientek, bizitzaren giza merkatuan lehiakorrenak, gure kabuz baliatzen gara, eginahalak eginda. Puzzle perfektuaren piezaren batek huts eman arte. "Bai arrazoa duzu, zuek aurrera egin behar duzue baina guk atzera" esan diot. Irribarre egin du.

Azkenaldian, krisi honen irakurketa baikoragoak entzuten hasiak gara. Garapen pertsonalean gertatzen ohi den modura, krisien ondorioz soilik omen dator eboluzioa, aldaketarako beta. Bestela denak berdin jarraitzen ei du. Kontzeptu berriak azaleratu

dira deshazkundera, sinpletasun boluntarioa, trantsizioa... psikologia alorrean superziorako hainbat sinesmen eta konbentzio zahar desikasi behar diren gisara. Krisi garaiotan, lagunak esandakoa gogoan, hainbat balio desikasi beharko genituzkeela otu zait, harremanen-sareak pantailetatik haratago nahi baditugu behintzat. Desikasi, indibidualismoa behingoz gainditu, eta horrela errealtate eta termino berri bat sortu: desbakartu.





Debako Gazte Asanblada

IZAN GAZTE, IZAN ASKE



Garai zail eta gorabeheratsuetan bizi gara, aldaketa garaiak. Garai berriek ideia eta helburu politiko berriak dakartzate. Helburu berriei heltzea ez da lan erraza, gizartean jada errotu diren inpotentzia eta beldurrari aurre egin behar diegu eta. Hainbeste traba egiten digun korapilo hau deslotzeko bide bakarra antolakuntza eta borroka da, baina tresna egokirik gabe ez dago etorkizuna behar bezala eraikitzerik. Erronka hauei guztiei aurre egiteko sortu da Ernai antolakundea.

Gazte Danbada, antolakunde berriaren jaiotza ospatzeko antolaturiko lau egunetako jaialdiari hasiera eman genion martxoaren 29an. Bertan ekintza oso ezberdinez beteriko egitarauaz gozatu genuen; tailer-rrak, mahai-inguruak, akanpalekua, hitzaldiak, kale animazioa eta kontzertuak, formakuntza, dibertsioa eta elkarlanaz gazte mugimendu sendoa egituratzea ardatz.

Debatik 28 gazte elkartu ginen; gure asmoa herriko gazteon harremanak sendotzea eta talde izaera irmotzea izan zen hasieratik. Nahiz eta eguraldia ez genuen lagun izan, elkarrekin bizitako kanpin montaje, lan-txanda eta parrandak harremanak estutzeko erabili genituen.

Gure bigarren egun eguzkitsua, Xabier Lopez Peña euskal preso politikoaren heriotzak goibeldu zuen. Gertakari honen ondorioz, arratsalderako prestatura zeuden hainbat ekintza bertan behera utzi behar izan genituen eta erantzun gisa manifestazio jendetsua burutu genuen Urduñako kaleetan zehar, gaur egungo espetze politika hiltzailearen aurka.

Manifestazioari amaiera emateko antolakunde berriaren aurkezpen ekitaldia egin zen, agerraldi internazionalista, bideoak eta baita Periko Solabarriaren hitz hunkigarriak ere.

Gauean, barrako turnoa zenbaitek eta aldi berean barraren bestaldeko ezinbesteko babes beste-

ek, ekipo polita elkartu ginen "lonja" barruan. Txanda amaitzean, karpa nagusiko kontzertuetara abiatu ginen kalejira inprobisatuan.

Igandeko goiz eguzkitsua guztion animoa berpiztu zuen. Aberri eguna ondo ospatzeko hamaiketako ederra egin genuen, salda eta raba eta guzti. Tailer ezberdinak, Errealaren partidua eta gauean azkenengo kontzertu "potenteak", gutako bi segurtasun turnoa egiten zeudelarik, peto eta guzti. Kontzertuetan jende pila bildu ginen, Danbada ondo bukatzeko modua askorentzat.

Hurrengo goizean ez ginen hain umoretsu esnatu, batzuk ondo lo eginda beste batzuk ez hainbeste, baina akanpalekuaren txukuntze eta desmontai lanari ekin genion. Amaitzean, motxilak hartu eta autobusez bueltatu ginen Debara.

Orokorrean oso balorazio positiboa egiten dugu lau egun hauetaz: gure hasierako asmoak guztiz bete dira. Baina ez dugu ahaztu behar iraultza ez dela amets soil ez egiten, denon ardura eta konpromisoaz soilik lortuko dugula baizik.

Esaten dutenez, ibiliaz egiten da bidea... eta gu martxan gaude!

Lotu borrokara, gurea da garaipena!



AULKI-JOKO ANKERRA

"Txin-txin, txin-txin, diruaren hotsa, haretzek ematen dit maitia bihotzian poza!". Zalantzarik ez, diruaz maitemindua zela hau abestu zuen lehena. Ezin uka, hala ere, hein batean, guztiok maite dugula dirua. Ez al ditugu, noizbait, gogotsu abestu hitzok, gureak balira bezala? Ezin baikara diru gabe bizi... Kasu askotan, pertsonen arteko maitasuna baino estuagoa da diruaz sentitzen duguna. Zozketak egokitzen direnean, bikote asko ei dira banatzen direnak;



Aitor Oñederra

diruaren sedukzioa hain da handia, hura gabe beste gutzia bigarren lekuan gelditzen dela.

Dirua behar ditugun gauzak eskuratu ahal izateko tresna da, hasiera batean. Tresna publiko bat. Guk aukeratutako agintariak aitortzen duten tresna ofiziala. Eta guk aukeratzin ditugun horiek gu guztion hobebaharrez ari badira lanean, diruak guztion onerako tresna bat beharko luke izan, ezta? (*Demagogia izango omen da, aspaldian gauza logiko guztiak bezala...*). Hau honela izanik, dirua nonbait gorde beharra dugula eta hara non aurkezten zaizkigun banketxeak guri zerbitzu hori eskaintzen. Hain sinplea balitz, edozein momentutan jaso ahal izango genuke gure dirua. Baina ez, ez da hain sinplea. Banketxeek guztion tresna den hori bahitu eta beren negozio-etara bideratzen dute. Zerbait erosteko nahikoa diru ez badugu, beraiei eskatu behar, interesarekin itzuliko diegun zinpean, gehiago bahitzen jarrai dezaten (eta hala ere, konplikatua goa da). Garai batean, horrek lukurreria (usura) omen zuen izena eta Elizak eta erlijioek gogor zigortzen zuten. Bai, banketxeak parasitoak dira. Baina... Ei! Zer nahi duzu, garai haie-tara itzuli ala?

Ez omen da existitzen pertsona guztion interes guztiak ordaintzeko adina diru munduan. Diru-zorroetan dugun euro bakoitza beste norbaitek hirugarren bati zor dio nonbait. Hau ez litzateke arazoa denbora oro diru kopuru osoa eskuz esku aldatzen joango balitz. Interesak ordaintzen doaz, berriak sortzen dira eta zor kopuru bat mantentzen da. Mekanismo

hau aulki-jokoarekin aldera daiteke. Musika entzuten ari garen artean, inkontzienteki, gus-tura egiten dugu guz-tiok dantza. Baina (nahiz eta hala sinestara-zi) musika ez da betirako eta, gelditzean, ez dago aulkirik guztion-tzat eta norbait kalera joan behar da. Krisia honela ikus daiteke, ezberdintasun batzue-kin, noski: aulki guztiak gutxi batzuek dituztela eta ez dutela ez banat-zeko ez maileguan emateko asmorik. Gainera, "la que está cayendo" eta horrelako-ak esanez manipula-

tzen gaituzte aulki bahitzea saihestu ezineko gertaera dela sinestarazteko. Joko bat lurudike, aulki gabe geratzeak batzuek beren burua leihotik botatzea ekarriko ez balu.

Aspertu arte entzuten dugu sistema hau dela orain arte asmaturiko hoberena, beste guztien gainetik irauin baitu. Eta egia da. Edozeren gainetik bizirik irauin duen sistema bakarra da. Baita pertsonen gainetik ere. Aberastasuna banatzeak sistemaren gainbehera ekarriko lukeela diote. Eta hori ezin omen da onartu. Baina ezer gabe geratzen direnek gosea pasa, kalean bizi edo beren buruaz beste egiten dute eta, noski, hori onar daiteke. Gure agintariak ez al ziren guztiongan pentsatuz lan egiten zutenak? Guztiongan lan egiten badute, nola eman diezaiket garrantzia gehiago sistemari guztion ongizateari baino? Azken finean, demokrata izatea al da hori? Bitartean, 1000 milioi euro baino gehiago dituztenen pertsona kopurua haziz doa European. Krisiak ez digu guztiok berdin eragiten.

"Zuzenbide Estatuan" bizi omen gara, baina zorpe-tzea da gehien erabiltzen dugun eskubidea. Eta interesak ez itzultzea eskubide gehiagorekin ordaintzen dugu. "Herriaren boterea" esan nahi duen Demokrazian bizi omen gara, baina ez dugu botererik. Ezta ere, tamalez, gure izenean erabakitze-ko boterea ematen diegun horiek ere. Boterea bankuek dute.

Dirua instrumentu ez-demokratikoa bada, posible izango al da inoiz, dirurik gabe bizitzea?

Iker Lamariano

Jarri zure publizitatea Berriketan aldizkarian!

Zuhatzia

943 191 383
berriketan@zuhatzia.com

DENSPY IMPLANTS

- INPLANTEAK
- PADI-a (haurren programa)
- ESTETIKA
- ORTODONTZIA
- PERIODONTZIA
- ENDODONTZIA
- PROTESI FINKO / MUGIKORRA
- ODONTOLOGIA OROKORRA

NORA HORTZ KLINIKA

Azpilgoeta 5
Mendaro
943 033 575

Lehen bisita, diagnostikoa eta aurrekontua doan.

RAIKETAK S.L.

SAGARMIÑA

Hondartza, 3-4 behea - Apartado, 31
20820 DEBA (Gipuzkoa)
Tel/Fax: 943 192 249
Mugikorrak: 629 639 685 / 629 641 940
sagarmina@sagarmina.com
www.sagarmina.com



Maiatzak 24, ostirala:
Kale antzerkia,
21:00etan.

"LES TAMBOURS DE FEU"
Deabru Beltzak Taldea.
Bilbo.

Aker, akelarreko deabrua hor dator kalean barrena, bere perkusionista lagun taldearekin, gure herrian zehar ibiltzeko prest. Zuzeneko musika, piroteknia eta izugarriko efektu espezialez osatutako ikuskizuna.



Maiatzak 25, larunbata:
Aldats pilotalekuan,
22:30ean (6 euro).

"EMAZTEGAIAREN SEMEA" Ados Teatroa.
Donostia.

Bizitzaren zati bat besterik ez da erakusten, hondartzeko zorian dagoen gizarte batean. Edonola ere, bizitzen jarraitzeko eta maitasunari eusteko indarrak atera behar dira. Rafael protagonistak eguneko 24 orduak ematen ditu balore eta ekonomia krisialdi latz batean murgilduta. Dibortziatuta dago, alaba gutxi ikusten du, ez dauka lagunik eta neskalagunarekin ez du konpromisorik nahi...



Maiatzak 26, igandea:
Kalean zehar, 19:30ean.

"KALE GORRIAN" Orratz Antzerki Taldea. Lezo.

Uribe Etxeko bizilagunak aterarazi egingo dituzte, etxeko jabeak hiriko Gune Historiko Kultura-Ondasun izendatzea nahi duelako; benetako planak beste batzuk dira. Bizilagunek etxea husteko agindua ekidingo dute, Patrizia eta Matilderi esker, biak ala biak Uribe Etxeko bizilagunak...



Maiatzak 28, asteartea:
GOAZ Aretoa, 10:30ean
eta 11:30ean.

"AMONA HONEKIN... KONTUZ" Aizamako Eskola Antzerkia. Aizama.

Gure protagonistak zahar etxe bateko aiton-amonak dira. Sarritan gertatzen den bezala, ez datoz bat zahar etxeko langileek proposatzen dizkieten ekintzekin eta tirabirak izaten dituzte. Antzerkian beraiek azalduko digute nolako den zahar egoitzako giroa honelako uneetan.



Maiatzaren 24tik ekainaren 1era ospatuko da, GOAZ Antzerki Taldearen eskutik

Luze joan zaigu aurtengo negua eta hotz. Garizumaren Pazko aldian, lorezko alfonbra polikromatuaren ordez, elur zuriz estaliak eta laino artean goibel ikusi ditugu gure mendi buruak. Noizbait, ohi baino berantiarrago, entzun ahal izan dugu kukua, tarteka-marteka, saio laburrak egiten, garaia baino lehen ari ote den beldurrez bezala.

Azkenean, ordea, heldu zaigu maiatza, umel bezain epel, eguzki gose, ateriago. Hasi da hegazti orkestraren fantasiako sinfonia, hosto berriz eder jantzitako zuhaitzien eszenatokietan, lo arazle gerta ez dadin, trumoi burrunbek aztorara-

zia, tximist argitan apaindua. Jaietan dugu izadia.

Jai bila doa GOAZ Antzerki Taldea ere. Aldats Pilotalekuan zabalduko du bere eszenatokia, maiatzaren bukaeran, eguzkia indartsuago denean. Antzerkiaren festa izango du Debak astebetetz, irri, algara, txalo iturri, alai. Malkoren batek edo bestek busti ere egingo gaitu agian, hoberean; udaberri lehorregia ez baita ona, ez da osasungarri, ez da emankor.

Bai, XXVII. Antzerki Astea. "Lana eginez GOAZ aurrera, / sortuz ta sortuz gure aukera, / atsendenik hartu gabe".



Maiatzak 29, asteazkena:
Aldats pilotalekuan,
17:00etan (3 euro).

"DANTZAN" Korri, Xalto
eta Brinko pailazoak.
Lezo.

Labetik atera berri duten ikuskizunarekin datoz oraingoan Korri, Xalto eta Brinko. Bigarren diskoko abestiekin dantzan jarri nahi dituzte haurrak, gurasoak, aitona-amonak eta... erratzak! Barizela daukatenak ere ez dira libratuko.



Maiatzak 31, ostirala:
Aldats pilotalekuan,
22:30ean (5 euro).

"LURRA ASTINDUZ"
Karrika Antzerki Taldea.
Durango.

Durangoko bonbardaketan oinarritutako ikuskizunarekin dator Durangoko Karrika Antzerki Taldea. Urte haietako sentimendu eta bizipenei argia eta hitza emanez, amodiozko istorio baten bitartez.



Ekainak 1, larunbata:
Aldats pilotalekuan,
22:30ean (5 euro).

"BERTSOKLOWN"
FINAL NAGUSIA.

Bertsoa eta Klowna uzartuz, Bertsoklown Finala ekitaldiaz gozatzeko aukera izango dugu. Final nagusi honetarako Jokin Uranga, Iñaki Gurrutxaga eta Iñigo Izagirre bertsolariak izan dira aukeratuak eta lehia bizian arituko dira txapelaren bila. Gai jartzaile lanetan gidari berezi bezain xelebrea izango dute: Iñozentzio. Lehia-kortasuna eta dibertimendua ez dira faltako.

HOGEITA ZAZPIGARRENA

Ibiltzen GOAZ ibiltzen,
Krisiak ez gaitu izutzen;
XXVII. ASTEA
GOAZ antolatzen.
GOAZ Taldea dugu izen,
AUZOLANGILE abizen;
Kostala kostala, saiatzen gara
Kultura herriratsen.

Dirutan gaudela urri
Aspaldi zaigu igarri.
Eskerrak zaigun Udaletxetik
Laguntza etorri.
Eskerrik asko berorri
Behar dizkiogu igorri,
Horrexegatik sarrerak merke
Baifitugu jarri.

Zazpi lan punta-puntako,
Handi nahiz txikientzako,
Gure antzerki zaletasunak
Merezi duelako.
Kalea dute alaituko,
Frontoia ikuslez beteko;
Eta ondoren, gure txalorik
Ez zaie faltako.



“Deban EH Bilduren eraikuntza eta sendotzea izango da gure eginbeharretako bat”



Martxan da Sortu, baita Deban ere. Azaroan abiatutako prozesu parte-hartzaile baten ondorioz eratutako alderdia apirilaren 26an aurkeztu zen, Arrano Elkartearen burututako afari baten bitartez. Alderdi jaioberriaren lehentasunen eta nondik norakoaren inguruan galdezka joan zaie Berriketaren Debako Sorturen ordezkariari.

Alderdi berri eta berritzaile gisa definitu da Sortu plano nazionalan. Baina zer izango du berritik Debako Sortuk? Berri eta berritzaile gisa definitzea erraza da, egunerokoan erakutsi behar dugu hori. Ezker Abertzalearen urteetako esperientzia du Sortuk eta helburu berdinekin jarraitzen dugu: independentzia eta sozialismoa.

Berritasuna garai eta testuinguru politikoari egokitzeko asmatzean datza. Estrategia politikoa berria da, jarduerak politikoa elkarlana eta indar metaketan oinarritu dugu, barne funtzionamendua parte-hartzean oinarrituko da.

Mugimendu politiko integral bat gara, herri dinamika eta lan instituzionala uztartuko dituen.

Prozesu parte-hartzaile baten ondorioz eratu da Debako Sortu. Noiz hasi zen prozesua, eta noiz amaitu? Zenbat herritar aritu dira eztabaida prozesuan?

Prozesua lau batzarretan banatu zen; azaroan hasi eta otsailan bukatu. Bilerak bakoitzean, Sortu izan behar denaren arlo desberdinak aztertu eta eztabaidatu genituen metodologia parte-hartzaile bidez (lan taldeak, jolasak...). Hogeita hamar lagun inguruk parte hartu genuen batzar bakoitzean eta gure ordezkariak hautatzeko egindako barne hauteskundeetan berrogeita bost lagunek eman zuten bozka.

Zeintzuk dira ezarri dituzuen lehentasunak?

Besteak beste, urte luzeetako gatazka politiko eta armatuaren ondorioak gainditzea. Debako kasuan honen erakusgarri nagusi diren lau presoak etxeratzea.

Bestalde, hondamendira garamatzen eredu sozial eta ekonomikoaren alternatiba erreala eraikitzea ere lehentasuna da. Gure herri eta eskualdeari dagokionez garapen eredu propioa eraikitzeko lan egitea.

Urteetan legez kanpo egon ostean zatozte berriro politika ofizialera. Urteotako etenaldiak eraginik izan al du?

Hamarkada oso bat iraun du ezker abertzalearen legez kanporatzeak. Hilabete honetan Ernai gazte erakundearen webgunea itxi berri du Audientzia Nazionalak; beraz, aldarrikapen politikoak erabaki judizialen bidez isilarazteko asmoak bere hartan jarraitzen duela dirudi.

Eraginari dagokionez, denbora honetan instituzioe-

tatik kanpo egon izanak ondorioak baditu, bai. Denon ahotan dagoen adibide bat aipatzearen, Zubietan errauskailua eraikitzearen erabakia ezker abertzalea ez zegoela aprobetxatuz hartu zuten erabakia izan zen.

Errauskailua aipatuta, zein da Debako Sortuk gai honekiko duen jarrera edo ikuspuntua?

Bilduk errauskailuaren aurkako plataforma herritarren aldarrikapena bere egin zuen hasieratik. Arrazoi tekniko, mediko, ekonomikoak... kontuan hartuta, errauskailua ez egitea da gure hautua. Horretarako, mundu osoan zabalpena duten Zero Zabor (*Zero Waste*, ingelesez) politikan oinarritutako plan oso bat diseinatu du Foru Aldundiak, herritarrok sortutako hondakinak modu eraginkorrago batean tratatuko dituen eta, hori gutxi balitz, gipuzkoarrei erdia kostatuko zaiguna.

Herrian, hondakinak biltzeko moduan aldaketa ekarriko du honek. Etxe guztietako hondakinak gaika (atalez atal) biltzea ezinbestekoa baita birziklatu ahal izateko.

Legez kanpoko aldi horretan sortu zen Bildu, eta hura instituzioetan ari da lanean. Hemendik aurrera, zer izango da Bildu eta zer Sortu? Eta gure herrian, zer izango da Alternatiba eta zer Sortu?

EH Bildu bost alderdi politikoren arteko koalizioa da. Bere errelejo nagusia instituzioetan dagoen arren, gure herriarentzat askatasuna eta eredu sozioekonomiko alternatiboa eraiki nahi dugun herritar guztion multzoa eta erreferentzia izatea du helburu, aldaketaren aldeko fronte zabala.

Deban, ilegalizazio politikaren ondorioz, Alternatiba izan zen ezker abertzaleko kideon erreferentzia azken hauteskundeetan. Gaur egun, erreferentzia Sortu da.

Ezker Abertzaleak beste aro bat hasi du. Datozen hilabeteotako eginbeharrak zeintzuk izango dira?

Aurreko galderarekin jarraituz, EH Bilduren eraikuntza eta sendotzea da gure eginbehar nagusia Deban. Azken udal hauteskundeetan Deba izan zen Bilduk parte hartu ez zuen herri bakantetako. Esan bezala, Euskal Herrian aldaketa politiko eta soziala bultzatzen dugun alderdi politiko eta herritarren multzo hori egituratu behar dugu, hasieran aipatutako lehentasunak burutu ahal izateko, besteak beste.

Berriketan gaztea

Mendata BHI-ko Prentsa Tailerrear Sortua.
2013ko maiatza

Batzorde hau Izaskun, Enrike eta Jokinek osatzen dute eta beraiekin batera Ane, Ekaitz, Laura eta Telmok euren burua aurkeztu dute argazki lehiaketa hau aurrera eramateko, eta laguntzeko. Argazki lehiaketa honek baldintza batzuk izan ditu, formatua, gaia eta beste gauza batzuekin arazorik ez izateko.

Batzordeak esan duenez, gaia librea izan da, nahi beste argazki entregatu ahal izan dira, karta baten barruan argazkia eta izena jarrita. Azkenik, paper arrunt batean edo argazki paperean inprimatu behar izan da argazkia.

Lehiaketa honek, beste askok bezala, sari bat izan du. Hasieran sari bat banatu behar zuten, baina aurreikusitakoa baino ikasle eta irakasle gehiagok parte hartu dutenez, bi sari banatzea erabaki dute; 25 euroko saria izan da irakasle eta ikasle irabazleentzat.

Aurtengo argazki lehiaketako irabazleak hauek izan dira: ikasleen artean, Libe Laka izan da irabazlea, eta irakasleen artean, berriz, Itziar Navarro.

Zorionak irabazleei, espero dugu datorren

urtean berriz ere jendea lehiaketa honetan parte hartzera animatzea. Irabazleen argazkiak institutuko blogean ezarriko dira.

Argazki lehiaketa


Aurten, urtero bezala, ikasle batzordeak argazki lehiaketa bat antolatu du.



Debako dunak

2013ko apirilaren 15ean, 3. DBHko ikasleak eguerdi aldera hondartzara abiatu ziren Idoia Elorriaga eta Jose Andres irakasleekin batera.

Ikasle eta irakasle hauen nahia Debako hondartzan duna batzuk sortzea izan da. Oraingoan, belar batzuk landatu dituzte harearen azpian (30 zentimetro gutxi gorabehera) eta landare horien eginkizuna harea landarearen inguruan metatzea da. Landare horiez gain, beste landare mota batzuk ere jarri dituzte ilara batzuk sortzen. Beste landare horien eginkizuna harea oztopatzea eta bertan geratzea da; horrela, hondarra pilatuz joango da gutxinaka eta dunak sortuko direla espero dugu, lau bat urte inguru pasa ondoren.



ELKA RRIZ KETA

IZENBE KAFETEGIA



Noiz sortu zen Izenbe? Zeinen ideia izan zen taberna hau zabaltzea?

Izenbe 1998ko urrian ireki genuen. Nire ideia izan zen –zehaztu du Marianek–. Gaztetatik jardun dut ostalaritzan, ezkondu nintzenean Debara etorri nintzen eta taberna jartzea erabaki nuen.

Zergatik jarri zenioten izen hori?

Nire senarraren aitonaen baserriko lurrek ez zuten izenik; Izenbe deitzen zioten eta hortik dator tabernaren izena (izen gabe).

Zein da arrakasta gehien duen platera?

Hanburgesa, patata tortilla eta etxeo kroketak oso ezagunak dira.

Zein da Izenben hain janari goxoa egiteko sekretua? (sukaldariak, osagaiak, errezeta magikoa...)

Sekreturik ez dago; kalitatezko produktuak erabiltzen ditut, ahal dudan guztietan ingurukoak edo Eusko Labeldunak. Inguruko baserrietakoak esan nahi dut.

Sariren bat irabazi al duzue janariaren batekin edo jatetxearekin?

Kursaalen parte hartu nuen behin patata tortilla lehiaketa batean. Estatu mailan bigarren geratu nintzen.

Ospetsuren bat igaro al da tabernatik? Zein?

Bai, baten batzuk pasa dira hemendik: Txiribiton, Osa txirindulariak, Titin pelotaria, Aperribai, Clemente entrenatzailea, Eñaut Zubikarai eta Asier Riesgo atezainak, Andoni Egaña bertsolaria, Euzkitze kazetaria eta Australiako barne ministro bat ere bai. Gogoratu: hementxe duzue estatu mailako bigarren tortillarik onena!

HOMOSEXUALAK, BISEXUALAK...

Oraingo honetan, Mendata ikastetxean homosexualitateari eta bisexualitateari buruzko galderak egin dizkiegu ikasleei:

- 1.- Zure ustez zer da homosexuala izatea? Eta bisexuala?
- 2.- Ba al dakizu zer den homofobia? Zer deritzozu?
- 3.- Zure lagun bat homosexuala balitz, nolakoa izango litzateke zure jarrera?
- 4.- Ezagutzen al duzu homosexual edo bisexualik?
- 5.- Zer uste duzu esango luketela zure senitartekoek zu homosexuala zarela esango bazenie?
- 6.- Lehen gaizki ikusia zegoen homosexualitatea. Zer pentsatzen duzu zuk horren inguruan?



Aitor Gonzalez:

- 1.- Gaur egun gauza normal bat da pertsona batek bere sexuko pertsona batekin harremanak izatea. Bisexuali bi sexueta pertsonak gustatzen zaizkie.
- 2.- Bai, homofoboak gay eta lesbianen aurka daude. Gaiztoak direla, ez dutelako eskubiderik hori egiteko.
- 3.- Berdina.
- 4.- Bai, bai.
- 5.- Ondo hartuko lukete.
- 6.- Inkulto batzuk zirela, ez dakitelako onartzen pertsona desberdinak daudela.



Alex Alonso:

- 1.- Bai, nire ustez sexu bereko pertsona bat gustatzea da. Bi sexuetaoak gustatzea.
- 2.- Ez dakit.
- 3.- Ona, nire ustez ona izan beharko litzateke.
- 4.- Bai, falete. Ez.
- 5.- Nik zer dakit!
- 6.- Gaizki dagoela.



Maitane Morcillo:

- 1.- Zure sexu bereko pertsonak gustatzea. Bi sexuetao pertsonak gustatzea.
- 2.- Ez errespetatzea homosexualak. Bakoitzak bere pentsatzeko modua duela.
- 3.- Aldatu egingo nuke jarrera.
- 4.- Bai, bai.
- 5.- Errespetatuko luketela uste dut.
- 6.- Gaizki dagoela, bakoitzak bere bizitza duelako.



Telmo Soto:

- 1.- Zure sexu berekoa gustatzea. Sexu guztiak gustatzea.
- 2.- Beldurra edukitzea homosexuali. Ez dela normala.
- 3.- Normal, besteekin bezala.
- 4.- Bai. Ez.
- 5.- Ezer ere ez.
- 6.- Ez dela normala, bakoitzari gustatzen zaiona gustatzen zaio.



Kepa Agerrista:

- 1.- Sexu berekoak gustatzea. Bi sexuetaoak gustatzea.
- 2.- Ez, ez dut.
- 3.- Normal, berdina.
- 4.- Ez.
- 5.- Bai.
- 6.- Arraroa izango zela.



Julia Ron:

- 1.- Sexu berekoak gustatzea. Bi sexuetaoak gustatzea.
- 2.- Ez.
- 3.- Bai.
- 4.- Bai, ez.
- 5.- Onartuko lukete.
- 6.- Gaizki iruditzen zait.



Leyre Elezgaray:


- 1.- Sexu bereko pertsonak gustatzea. Bi sexuetaoak gustatzea.
- 2.- Homosexuali fobia edukitzea edo ez gustatzea. Gaizki dagoela.
- 3.- Berdina, enteratu baino lehena go eduki dudana berdina.
- 4.- Bai. Bai.
- 5.- Berdin erreakzionatuko lukete.
- 6.- Gaizki, bakoitzari gustatzen zaiona gustatzen zaio. Ez dugu besteen bizitzetan sartu beharrik!



Ainhoa Salegi:

- 1.- Sexu bereko pertsonak gustatzea. Biak gustatzea.
- 2.- Homosexuali beldurra edukitzea. Errespetatu egin behar direla.
- 3.- Hasierako berdina.
- 4.- Bai. Ez.
- 5.- Errespetatu egingo nindukete.
- 6.- Pertsonak direla eta berdina errespetatu behar direla.

EGILEAK: Amaia Mendikute, Jon Yarza eta Maria Aizpurua



DenBord-pasak

TXISTEAK

***Errepidean,** bihurgune arriskutsu bat dago, eta bertatik ez da inor pasatzen. Ezustean, bi moja agertu dira motorrean eta bihurgunetik pasatu dira. Bihurgune aurrean dagoen poliziak, hor esan die:

-Nolatan pasatu zarete bihurgunetik?

-Jesus gurekin delako-, esan dio moja batek.

-Orduan isuna ipiniko dizuet, motorrean hiru joateagatik-, esan die poliziak.



***-Aita!** Zuk bronka botako zenioke ezer egiten ez duen mutil bati?

-Ez!-, erantzun du aitak.

-Orduan lasai esango dizut ez ditudala etxeko lanak egin!

***Zein** izen dute Txinako hiru pertsona pobreenek?

-Txinlu, Txinagua eta Txingasl!

Zein animalia daude ezkutuan?

Aurki itzazu zazpi animalia, izenak ordenatuz.

1 - Di - a - Zal =

2 - Ria - Aha =

3 - Ker - ra - A =

4 - Ri - A - Zer =

5 - La - Rra - Oi =

6 - Tu - a - Ka =

7 - Ze - Na - Ze =

EGILEAK: Ane Garcia, Naia Orbegozo eta Nora Mandiola

LAGUNTZAILEAK:



BABESLEAK:



Debako Udala



PRENTSA TALDEA 2012-2013

Naia Orbegozo
Maria Aizpurua
Jon Yarza
Iratz Fernandez
Imanol Sobrado
Jon Albizu

Aitor Gonzalez
Alex Treku
Ane Garcia
Nora Mandiola
Iker Leiro
Amaia Mendicute

Koordinatzailea: Iraide Otazua

EDERTO PASA GENUEN KOLORE ANITZ EGUNEAN! Eskerrik asko guzti-guztioi!



Kaixo, debar!!

Hemen gatoz berriro ere Zuhatzako Kolore Anitz Aisialdi Taldeko kideok!

Pasa den maiatzaren 4an Kolore Anitz Eguna ospatu genuen eta bertan jende andana bildu ginen haur, gazte eta helduekin "Mezu Ezkutuaren Bila" jolasean, baita pasta lehiaketa, bazkari, bazkal ondorengo jolas eta erromerian ere!

Eguraldia lagun, eguna ondo baino hobeto joan zen eta oso ondo pasatu genuen; espero dugu zuek ere ondo pasa izana!

Eskerrak eman nahi dizkizuegu bertaratu zineten denoi, parte hartu izanagatik!! Gure eskerrik beroenak baita ere EZTEN GIRO erromeria taldeari, dantza ugari egin genuen!



EUSKARAZ? POZIK GAINERA!

Denda, jatetxe eta tabernetan euskararen erabilera bultzatzeko programa gauzatzen ari da:

1) Merkatarientzako formazio saioa egin zen: Gehiago eta hobeto saltzeko estrategien artean euskara erabiltzeko eskaini ditzakeen aukeraz aritu nahi izan genuen, besteak beste.

2) Herritarren artean nola jarduten dugun, ze hizkuntza ohitura ditugun, hobekuntzak nola imajinatzen ditugun...

pentzatzeko antolatutako bideo-lehiaketan, lan izugarri polita aurkeztu zuten Debako gaztetxo batzuek. Ondorio honetara iritsi ziren: "gure esku dago". Hemen ikus dezakezue bideoa: www.youtube.com/watch?v=IsB_8AUfi4c

3) Dendaz denda gabiltza, poliki bada ere, "Euskaraz? Pozik gainera" pegatina zabaltzen. Pegatina hori ikusten duzun tokietako jabea prest agertu da zerbitzua euskaraz emateko, informazioa eus-

karaz eskaintzeko eta bezeroari lehenengo hitza euskaraz egiteko. Aprobetxa ezazu aukera eta egin ezazu, zuek ere, lehenengoa ez ezik, bigarren eta hirugarren hitza ere euskaraz.

4) Udalak, azken urteetan bezala, laguntza ekonomikoak zein teknikoak eskaini dizkie dendariei kalera begirako informazioa euskaraz eman dezaten.

Udaleko Euskara Batzordea

Yako Debako Surf Eskolak uda hasierako festa antolatu du



Uda hasierako festa egingo du Yako Debako Surf Eskolak datorren ekainaren 2an (igande). Bertara gerturatzen direnek Surf eta Arraun Surf ikastaroak doan jasotzeko aukera izango dute; eta, gainera, egun guztian zehar materiala probatzeko aukera ere izango dute festara animatzen diren guztiak:

***Arraun Surf/Stand Up Paddel**, modelo ezberdinak (trabesia edo zeharkaldikoak, olatuetan aritzeakoak, paseatzeko edo nabigaziokoak...).

***Surf taulak**, modelo ezberdinak (ikastaroetan erabiltzen direnak, Trinito prototipoa, Yako etxeko taulak...).

Horrez gain, arratsaldeko 18:00etan lagun arteko Arraun Surf/Stand Up Paddel lasterketa ere antolatu dute, festan dagoen eta parte hartu nahi duen edonorentzako. Lasterketan parte hartzeko, Yako Debako Surf Eskolak jarriko ditu Arraun Surfak

partaideen eskura.

Festara gerturatzen direnak, astebeteko ikastaro, material tekniko eta hainbat opariren zozketan sartuko dira.

Surf ikastaroak lau taldetan banatuko dira; talde bakoitza 15 lagunek osatuko dute gehienez eta taldeak osatu ahala hasiko dira ikastaroak. Interesatuak Yako Debako Surf Eskolan eman beharko dute izena -11:00etan, 12:00etan, 16:00etan eta 17:00etan emango zaie ikastaroa, eta ordubete iraungo du-.

Arraun Surf (SUP) modalitateko ikastaroetan, sei pertsonako taldeak osatuko dira eta izena egunean bertan eman beharko da, eskolan bertan. Taldeak osatu ahala ekingo zaie ikastaro-
ei eta hiru saio egingo dira (10:00-11:00; 11:00-12:00; 12:00-13:00).

Animatu eta etorri Yako Debako Surf Eskola Festara, ondo baino hobeto pasako dugu elkarrekin!

Arrakastaz burutu da triatloiaren V. edizioa

Maiatzaren 11n triatloiaren bosgarren edizioa ospatu zen Deban. Euskadiko Triatloi Sprint Txapelketa izan da aurten goa (0,7km-30km-5,2km) eta 2013. urteko bigarren proba puntuagarria izan da Euskal Herriko triatloi zirkuituari dagokionez. Deba-Itziar Xtreme taldeak, Gipuzkoako Triatloi Federazioak eta Euskadiko Triatloi Federazioak antolatu zuten hitzordua.

Garaileak hauek izan dira: Ainhoa Murua (Codeam T.E.) zarauzitarra emakumezkoetan -1:28:53 denborarekin-, eta Nicholas Kastelein australiarra gizonezkoetan -1:19:56 denborarekin-. Euskadiko triatloi sprint txapeldunei dagokienez, Murua bera gailendu da emakumezkoen kategorian eta Aimar Agirresarobe (Tolosaldeko T.T.) tolosarra, berriz, gizonezkoen artean.

Taldeka, Zarauzko Codeam Triatloi Elkarteak nagusitu da emakumezkoetan, eta Debagoienako Antxitxika Triatloi Taldeak gizonezkoetan.



Errealaren Lagunak peñaren 25. urtemuga

Maiatzaren 4an, eta Errealaren Lagunak peñaren 25. urteurrena ospatzeko, Amaiak Bat eta Errealaren beterrano mailako partida ospatu zen Errota Zarren. Partida Errealekoek irabazi zuten: 2-5. Partida giro ezin hobean ospatu zen eta zelaira hurbildu zen jende ugariak eguerdi bikaina izan zuen. Partidaren atsedendian, rifa bat zozketatu zen eta zenbaki irabazlea 1878a izan zen. Irabazlea Gemma Arribas izan zen eta taldeko presidente Dabi Sagarnak eman zion saria.



Ander Salegi

“Egun Berdea” Luzaron

Aurten, apirilaren 26an, Agenda 21 proiektuarekin lotuta “Egun Berdea” ospatu zen Luzaro ikastetxean. Hori dela eta ekintza desberdinak egin genituen egunean zehar: mendi irteera, pintxo tailerra frutekin, horma-irudiak, eskulanak birziklatzeko materialekin... Azkenean, argazki orokor bat atera genuen **A21** hitza irudikatuz. Gure lema hau izan da:

*Zaborrik gabe natura dugu
txit eder eta argia
manten dezagun geurea bada
txukuna eta garbia.*

*Ez utzi besteen eskuetan
zure arduraren guztia
bakoitzak ahal duena eginez
zain dezagun izadia.*



Literaturaz blai, Liburuaren Nazioarteko Egunean



Liburuaren Nazioarteko Eguna ospatu zen apirilaren 23an eta Ostolaza Dokumentu Funtsak ekimen ezberdinak hartu zituen hitzorduaren bueltan, literatura ardatz hartuta betiere.

Besteak beste, 40 bat liburu "liberatu" zituzten; Kultur Elkarteko zuzendaritzako kideen bilduma partikularretatik jasotako liburuak ziren gehienak eta herriko txoko ezberdinetan utzi ziren gero (tren geltokian, zumardian, Simon Berasaluze plazan...), herritarrek liburuak irakurtzeko aukera izan zezaten.

Ostolaza Dokumentu Funtsera daramaten eskaileretako hormetan idazle entzutetsuen zein autore debarren poemak zintzilikatu zituzten. Bertaratutakoek plastikozko tapoi ugari bildu zituzten atarian (antolatzaileek halaxe eskatuta alde zurretik), helburu benefikoetan laguntzeko.

Haurren gozamenerako, Gurutz Garmendia ipuin kontalariak "Euskal Mitologia" narrazioa irakurri zuen gero; 50 bat haur eta haien zaintza zuten 20 bat heldu elkartu ziren bertan.

Lekukoa nagusiek hartu zuten gero, 30 bat lagunek kafe-tertulia egin baitzuten. Kafea eta pastak lagun, Esqalera Poesika talde donostiarra entzuten aritu ziren lehenbizi. Luisillo Zabala poetak bere olerkiak errezitatu zituen, grazia, satira, maitasun eta umore keinuak uztartuz. Eskailera bat izan zuen eszenatoki, eta haren hitzei Antxon Gutierrezen baxuak eman zien doinua (gitarristak ez baitzuen etortzerik izan).

Taldearen atsedenaldietan, irakurketa ezberdinei utzi zitzairen tarteak. Batetik, autore ezagunen obrak hartu ziren oinarri; Oliverio Girondoren "La mujer que vuela" poema ederra tarteko. Obra hori Ainarra Sedanok irakurri zuen, azentu argentinarrak txukun batekin. Bestetik, bertan bildutako hainbat herritarrek euren kontakizun, olerki edo pentsamendu idatziak irakurri zituzten. Eta, Alex Turrillas eta Rexu Arakistainen narrazioak, Rafa Bravoren poesia edota Alberto Egurrolaren pentsamenduak entzuten zituzten bitartean, alfabetoaren jokoan aritu ziren bertaratutako guztiak, alfabetoko hizkiak hitzak zein esaldiak idazteko inisialak direla gogoratuz. Poema kolektibo bat osatu zuten denon artean, gazteleeraz.

Kultur Elkarteko Lourdes Gonzalez presidentek omenaldi txiki bat eskaini zion zendu berri den Jose Luis Sampedro idazle, humanista eta ekonomistari, haren pentsamenduak irakurri.

Oro har, parte-hartze handia izan zuen hitzorduak; euskara zein gaztelania baliatuta, genero literario ezberdinak izan ziren protagonista. Orotara 100 bat lagun bertaratu ziren, horietako asko eta asko haurrak.

Hitzordu dinamikoa izan da aurtengoa, literatura pixka bat gehiago maitatu eta desmitifikatzeko pizgarri. Irakurri, entzun, idatzi, irudikatu, sentitu edo amesteko bilgunea izan da. Eta literatura izan da protagonista bakarra.

Rosa Muriel

Euskal Herriko Animazio Saria, Aitor Oñederrarentzat

Pasa den maiatzaren 4an Bilboko Alhondigan ospatu zen Nontzefilmak Film Laburren Lehiaketan, Aitor Oñederrak irabazi zuen Euskal Herriko Animazio Saria, Gari kantariaren azken diskoko "Dena eta ezer

ez dago" izeneko kantuarekin sortutako bideoklip lanarengatik.

Martxoaren hasieran aurkeztu zen Gariren "Ez da amaiera" izeneko diskoan, diseinu eta irudigile bezala parte hartu zuen

Aitor Oñederra debarrak eta Garik Donostiako Victoria Eugenia Antzokian eskainitako kontzertuan ere parte hartu du berriki, musikariaren kantak bere animazioez janzten. Zorionik beroenak, Aitor!




Deban Kalean Kantuz liburuxka, bost euroren truke

Deban Kalean Kantuz taldeak kantu liburuxka berria argitaratu du, Zuhatza Euskara Elkartea, Debako Kultur Elkartea eta Euskalinpiren laguntzare-

kin. Liburuxka berriak 115 euskal kanta herriko biltzen ditu guztira; abesti horien letrak ez ezik, oinarriko musika akordeak ere agertzen dira liburuxkan eta aur-

kibidea ere badakar.

Dagoeneko salgai dago liburuxka berria, bost euroren truke, Azokan, Arkatzen, eta Masillo dendan.



Agenda

Maiatzak 25, larunbata

-8:30. "Nafarroaren jatorria eta natura" izenburupean, egun osoko txangoa antolatu du Kultur Elkarteak Nafarroara.

Maiatzak 26, igandea

-Ibilaldia 2013, Portugaleten. Debatik 9:00etan irtengo da autobusa.

Maiatzak 30, osteguna

-Greba Orokorra, euskal gehiengo sindikalak deituta.

Maiatzak 31, ostirala

-19:30. Azken ostirala. Preso eta iheslari politikoen aldeko mobilizazioa plazan, Herrira mugimenduak deituta.

Ekainak 1, larunbata

-Mintza Eguna, Elgoibarren. Euskal Herriko mintzalagun guztientzako antolatutako jaialdia, egun osoan zehar.

-Merkatu Txikia, estalitako pasealekuan. Goizean.

Ekainak 2, igandea

-9:30. Nesken pala partidak, Aldats pilotalekuan.

-Uda hasierako festa, Yako Debako Surf Eskolak antolatuta. Informazio gehiago, 16. orrialdean.

Ekainak 7, ostirala

-12:00. "Debako kondairak: ilustrazioen erakusketa", Agirre Jauregiko erakusketa gelan.

-22:00. Zer ginen eta nor gara? "Itsasoa", "Ohitura eta sinesmenak" eta "Nortasuna"-ren inguruko herrikoen testigantzak, Agirre Jauregian.

Ekainak 8, larunbata

-11:00. Ibilbide nordikoaren erakustaldia, Kioskoan.

Ekainak 9, igandea

-Andutz Eguna, Burdin Kurutz Mendi Taldeak antolatuta.

Ekainak 14, ostirala

-11:00. "Irarrazabalgo hormarateratua", Luzaroko ikasleen antzezpena, Agirre Jauregiko plazan.

-18:30. San Juan suaren inguruko ohiturak; "Ura eta sua", Agirre Jauregiko Ispiluen Gelan.

Ekainak 16, igandea

-Zubi Txiki Eguna, Zubi Guraso Elkarteak eta Gaztelekuak antolatuta.

Ekainak 21, ostirala

-17:00. Ur jolasak herriko neska-mutilentzat, Zumardian. Gaztelekuak antolatuta.

Europar Geoparkearen Astea

-Maiatzaren 18tik ekainaren 9a bitarte, Europar Geoparkearen Astea ospatuko da. Deban, Mutrikun eta Zumaian ekimen ezberdinak burutuko dira. Maiatzaren 26an, adibidez, Marearteko zabalguneko bi-dibertsitatea irteera gidatua egingo da Debatik Sakonetara,

eta maiatzaren 27an hitzaldia eskainiko du Asier Hilariok Agirre Jauregian ("Deba eta Mutrikuko Interesgune Geologikoak Geoparkean, gure ondare geologikoa zaindu eta ezagutzeko modurik errazena"). Egitarau osoa eta informazioa: www.geoparkea.com-en.

Ikasturte amaierako jaialdiak

-22:00. Branka Aerobik Taldearen ikasturte amaierako jaialdia, ekainaren 14an (ostirala), Aldats pilotalekuan.

-22:00. Kulunka Ballet Taldearen ikasturte amaierako jaialdia, ekainaren 15ean (larunbata), Aldats pilotalekuan.

Agirre Jauregiko erakusketak

-Haur margo lehiaketari dagokion erakusketa, maiatzaren 24tik ekainaren 9a bitarte.

-Arte Eskola. Kurtso bukaerako erakusketa, ekainaren 12tik 23a bitarte.

Gipuzkoako XLIV. Hiru Txirilo Bolo Txapelketa

-Hiru jaurtialdi gelditzen dira aurtengo txapelketari amaiera emateko. Maiatzaren 25ean Asola Berrin (Eibar), ekainaren

1ean Ezozian (Soraluze) eta ekainaren 8an Garmendipen (Azpeitia) izango dira hitzorduetan, arratsaldeko 5etan.

2013ko Euskal Jairako kartel lehiaketa

-Zuhatza Euskara Elkarteak irailean ospatuko dugun aro berriko XVI. Euskal Jairako kartel lehiaketa antolatu du.

Kartelak derrigorrez testu hau izan beharko du: "EUSKAL JAIA 2013 DEBA". Partaideak bertakoak izan behar dira. Kartelen neurria gutxi gorabehera 50x65 zenti-

metrokoa izango da, eta formatuak nahitaez bertikala izan beharko du (teknika libre). Kartelak ekainaren 28rako aurkeztu behar dira, Zuhatzaren lekuan. Kartel irabazlea botonen bidez hautatuko da, erakusketa batean, eta lan saritua Zuhatzaren esku geratuko da. Animatu eta parte hartu!

Seven Clovers
Irish pub

Gozatu gure garagardoa

Hondartza, 11 • 20820 DEBA • Tel. 943 191 295



Bar LOREA

"Orotariko tartak etxean eginak"

Angulero kalea • 20820 DEBA • Tlfnoa.: 943 191 095

ZAINZAKO BOTIKA

Egunez, 09:00etatik 22:00etara



Zalduegi: maiatzak 31.

ekainak 1, 2, 10, 11, 12, 13.

Burgoa Zuazo: maiatzak 27, 28, 29, 30.

ekainak 14, 15, 16.

22:00etatik 09:00etara, Elgoibarren botika bat gardian.

DEBAKO BOTIKAK

ZALDUEGI: 669 262 201

BURGOA ZUAZO: 667 338 890

Larunbat goizetan beti bat irekita:

ZALDUEGI: ekainak 1 eta 8

BURGOA ZUAZO: maiatzak 25

ekainak 15 eta 22


9:30 - 13:30



MULTIÓPTICAS UZURI

OSTOLAZA, 7 • 20820 DEBA
TEL. 943 19 21 92

ZURE
ENTZUMENA
ZAINTZEN



**MULTIÓPTICAS
Uzuri**

Mikel

- Iturgintza
- Berogintza
- Gasa
- Altzariak
- Osagarriak

Mobila: 699 975 206
Tel.-faxa: 943 191 774
Hondartza, 10 - behea
20820 DEBA (Gipuzkoa)
mikeliturgintza@euskalnet.net
www.mikeliturgintza.com

**A
D**

ASESORIA DEBA C.B.

JURIDIKOA - LABORALA - FISKALA - ASEGURU KONTABLEA- HIGIEZINAK

Miren Lore: 669 895 617
Eduarne: 669 895 619

Tel.: 943 192 127
HONDARTZA, 2 - BEHEA Fax: 943 192 482
20820 DEBA (GIPUZKOA) ase.deba@teletel.es

atari

etxebizitza zerbitzu integrala

SALMENTA, ALOKAIURAK, ABOKATUA
Lersundi 1, behea 20820 - DEBA
Tel: 943192263
www.atarideba.com

**Lizaso
Autozerbitzua**

Lersundi kalea, 21
Tlfnoa: 943 19 27 29



**ITXAS GAIN
Taberna
ITXAS GAIN**

Hondartza ondoan
Urte guztian zabalik

Nafarroa Plaza • Tlfnoa.: 943 192 576
20820 DEBA

oskarbi

Menua
Ogitartekoak
Plater Konbinatuak

Lersundi kalea, 9
Tel. 943 020 488 - 818 544 014
20820 DEBA (Gipuzkoa)

**ALBIZU
HARATEGIA**

Lersundi kalea, 27 - 943 19 14 47 - 20820 DEBA (Gipuzkoa)

**IGARZA
TABERNA**

Ostolaza, 5
DEBA
Tel.: 943 191 197

IZENBE

- Gosariak
- Txikiteoa
- Pintxoak

Itur kalea • Tlfnoa.: 943 192 473 • 20820 DEBA




**GENOVEVA
Arraindegia**

Ostolaza Kalea 25.
20820 DEBA (Gipuzkoa)
Telf.: 943 191 818



ZALBURDI

Plaza Arakistain - DEBA Tel.: 943 19 20 03



**MAZZANTINI
TABERNA**

Sokagiti, 7 - 20820 DEBA (Gipuzkoa)
Tel. 943 192 422

**BOKATAK - PINTXOAK
ETA GIRO ONA**

Informatika: **JL** Elektronika

Tresneria informatikoa Oragi elektronikoa

Tel.: 943 19 17 83
Faxa: 943 19 18 36
Mugikorra: 686 939 601

Maxpe kalea, 7 - Behea
20820 DEBA

e-mail: jl@informatika@elektronika.e.telefonico.net

**Bordatxo
JATETXEA**

Zesterokua Plaza
Tel.: 943 029 376
Bazkariak: 13:00 / 16:00
Ariak: 20:00 / 23:00

BEREZITASUNA PARRILAN:

- Asteburuko menuak - Parrilan menuak - Mokadu eta pintxoak
- Plater konbinatuak - Etxera eramateko jakiak - Ospakizunak



Deba eta Itziarren

KOLOREZ BLAI UDALEKUAK



Gurasoentzat bilera:

Ekainak 21, ostirala, arratsaldeko 5:30ean
Itziarko apaiz etxean eta 7:00etan
Debako Zuhatza Euskara Elkarteko bulegoan.

Informazio gehiagorako: 943 19 13 83
telefono zenbakia edo
koloreanitz@gmail.com helbide elektronikoa.

